

**Herri Lan eta Garraio Saila**

**1538/2013 FORU AGINDUA, martxoaren 19koa. Honen bidez, lanbide-gaitasunaren ziurtagiria lortzeko probak egiteko ardura duen epaimahaiaren osaera aldatzen da.**

2009ko uztailaren 28ko 818/2009 Foru Aginduaren bidez («Bizkaiko Aldizkari Ofiziala», 154. zk., 2009ko abuztuaren 14koa), salgaiak edo bidaiariak errepide bidez garraiatzera zuzenduriko zenbait ibilgailuren gidarien hasierako prestakuntza egiaztatzen duen lanbide-gaitasunaren ziurtagiria lortzeko proben deialdia egiten da, eta bertako 7. oinarriko 1. puntuan zehazten da zein izango den epaimahaiaren osaera. Foru agindu hori, ondoren, 2010eko azaroaren 9ko Foru Aginduaren bitartez aldatu zen.

Egungo epaimahaiko kide batzuek hemendik oso gutxira utziko dute saila, eta, beraz, ordezkatu egin behar dira kideok.

Adierazitakoaren ondorioz, eta Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 17.1.14 artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan eta Garraio Sailaren araudi organikoa onartu zuen irailaren 27ko 155/2012 Foru Dekretuaren 1.b) eta 2. artikuluetan ezarritakoa kontuan hartuta eta aipatutako foru dekretu horretako 4.m) artikulua xedatutakoaren arabera, honako hau sinatzen duenak proposamen hau aurkezten dizu, azter dezazun:

## FORU AGINDUA

**Lehenengoa**

Aldatzea 818/2009 Foru Aginduko zazpigarren oinarriko 1. puntua, 2010eko azaroaren 9ko Foru Aginduak emandako idazketaren arabera; izan ere, puntu horretan arautzen da zein izango den lanbide-gaitasunaren ziurtagiria lortzeko epaimahaiaren osaera. Aldaketaren ondorioz, honela geratuko da puntu hori:

Epaimahai titularra:

— Epaimahaiko burua: Arantza Calderón Revuelta.

— Epaimahaikideak:

- Amaia Aramburu Larrea.
- Joseba Gorostiza Castaños.
- Aitziber Elezcano Altuna.

— Idazkaria: Mar Valle Oza.

Ordezko epaimahaia:

— Epaimahaiko burua: Iñaki Meñaka Hemerit.

— Epaimahaikideak: M.<sup>a</sup> Concepción Lázaro Fernández.

M.<sup>a</sup> Carmen Landecho de Miguel.

— Idazkaria: Jasone Ardanza Negugogor.

**Bigarrena**

Foru agindu hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen dadin agintzea.

Foru agindu hau behin betikoa da, eta administrazio-bidea amaitzen du. Interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute agindu honen aurka, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, aginduaren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrerako bi hilabeteko epearen barruan.

Dena dela, errekurtso hori jarri aurretik aukerako berraztertze-errekurtsoa jar daiteke foru diputatu honen aurrean, aginduaren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrerako hilabeteko epearen barruan. Horrela bada, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri harik eta lehenago aurkeztu den berraztertze-errekurtsoaren ebazpen adierazia eman arte edo haren presuntziozko ezespina gertatu arte.

Dena dela, egokitzat jotzen duten beste edozein errekurtso ere jarri ahal izango dute.

Bilbon, 2013ko martxoaren 19an.—Herri Lan eta Garraio foru diputatua, Itziar Garamendi Landa

(I-498)

**Departamento de Obras Públicas y Transportes**

**ORDEN FORAL 1538/2013, de 19 de marzo por la que se modifica la composición del Tribunal encargado de realizar las pruebas para la obtención del certificado de aptitud profesional (CAP).**

Mediante la Orden Foral 818/2009, de 28 de julio, publicada en el «Boletín Oficial de Bizkaia» número 154 de 14 de agosto de 2009, se hicieron públicas las bases reguladoras de las pruebas a celebrar para la obtención del certificado de aptitud profesional, quedando establecido en el punto 1 de la base 7 la composición del Tribunal encargado de realizar dichas pruebas siendo modificado el mismo mediante la Orden Foral 1098/2010, de 9 de noviembre.

Siendo inminente el abandono del Departamento de alguno de los miembros del actual Tribunal, procede realizar la sustitución de los mismos.

Por lo expuesto, de conformidad con lo previsto en el artículo 17.1.14 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia y artículos 1 b) y 2 del Decreto Foral 155/2012, de 20 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento Orgánico del Departamento de Obras Públicas y Transportes de la Diputación Foral de Bizkaia y en virtud de lo dispuesto por el artículo 4 m) del Decreto Foral señalado, el que suscribe tiene el honor de someter a V.I. la siguiente propuesta de

## ORDEN FORAL

**Primero**

Modificar la base séptima, punto 1 de la Orden Foral 818/2009, de acuerdo con la redacción dada a la misma por la Orden Foral 1098/2010, de 9 de noviembre, por la que se regulaba la composición del Tribunal para la obtención del certificado de aptitud profesional (CAP), quedando de la siguiente manera:

Tribunal Titular:

— Presidenta: Arantza Calderón Revuelta.

— Vocales:

- Amaia Aramburu Larrea.
- Joseba Gorostiza Castaños.
- Aitziber Elezcano Altuna.

— Secretaria: Mar Valle Oza.

Tribunal Suplente:

— Presidente: Iñaki Meñaka Hemerit.

— Vocales: M.<sup>a</sup> Concepción Lázaro Fernández.

M.<sup>a</sup> Carmen Landecho de Miguel.

— Secretaria: Jasone Ardanza Negugogor.

**Segundo**

Ordenar la publicación de la presente Orden Foral en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

La presente Orden Foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Los interesados podrán interponer contra la misma recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao, en el plazo de dos meses a partir del siguiente al de su notificación.

No obstante, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante esta Diputada Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta.

Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que estime pertinente.

Bilbao, a 19 de marzo de 2013.—La diputada foral de Obras Públicas y Transportes, Itziar Garamendi Landa

(I-498)